

GAYARRE ETA MENDIA

FOR MATXIN LABAYEN

Gayarre, Euskaldun abeslari ospetsua mendian jaio zan, Erronkariko erritxo pollit batean, oraindik Euskera zaarra egiten zan denboran. Ez dago esan bearririk Erronkaritarrak euskaldunak izan diralarik eta Euskaldunak dirala orain ere.

Belagua aldean, Pirineo izugarri txit zuriak aurrean zituala gau eta egun, egunsenti ta illunabarretan, ezagatu zun gure Gayarre txikiak mendia eta bai ta ere maite— ardiak zaintzen ari zanian. Mendia ikusi eta ez maitatzia ezin liteke noski biotz ta bero pixkt balin ba degu. Ain eder, ain garbi, ain bakun, ain alaia da!

Guk ditugun griña goratsuenak, obeeneak, mendiakin alkartzen dira guk ala ez ustean— itxas eta zerua alkartzen diran bezela eguzkia eta lanbrua— zuaitz, arkaitz eta zelaia!

Zein dan zoragarria mendia! Ta ixtorioak ez ba digu esaten ere— alegia gure Gayarrek arkaitz— baso— ta mendi tartean ikasiko zitun abestuko zitun lenbiko abestiak— Erronkariko Euskera itxian.

Gero ba diigu nola jarraitzen dun gure ipuiak. Munduak— mundu aundi ta zabalak Gayarren abotz arriagarria ezagutu zun ta bai ta ere bere magalean estutu— gorde— ama maitekor batek bere semetxo kutuna bezela. Ta dena eman zion, parra parra— naro naro— ugari ugari— urre, zillar— dizdir— ospe.

Baian ala ere Gayarrek— bai Paris— Erroma, Buenos Aires, Londres, Milan, San Petersburgo'n, ez zuan aaztu bere Erronkari— Naparra (Euskalerriaren arreba zarra) ta bere gogoa, ametsetan euskaldun abesti kutsu goxoetan— Belagua— Añamendi— Euzkarre, Pirineo aldera ega egiten zun arin, arrano gazte bat bezela.

Munduko edertasun, arrokeri, dirdirak ez zun itxutu noski gure abeslaria ta beti beti denbora gelditzen zitzaionian, ara korrika biotza saltoka barruan, Erronkarira itzuli umezurtz ba litzake bezela bero pixka baten billa txitoak bere amarena bezela!

Munduak ez zuran il bere animan— bere dizdir soñu ta dunbotsakin Euskalerriaren maitasuna— mendian ikasi zuen umiltasun— bakuntasuna. Ta bere aideak laister ikusi zuten nolakoa zan bere biotza.



Bañan oraintxe dator aundiena. Gure Gayarrek ez zuan aaztu Euskera, ezta ukatu ere. Denbora zakar aietan— euskerarentzat denbora guztiak zakarrak— Euskaldun oso bat bezela jo zun beti lotsa, bildurtu gabe.

Mendiaren ikaskaia euskeraren maitasuna ondo ikasi zun. Izkuntza guztiak ederrak dira bai, baña lenbizi geurea.

Euskera ez dakin otiñea naiz Euskalerrian jaio— ez da Euskalduna.

Arrigarria benetan. Gayarren bizitza!

Nolako bizitza, alako eriotza ta alako Illobia.

Illobi alai— apaiña ederra Gayarrek merezi zuna!

Ta lekua ezin obeagoa— Pirineo aurrez aurre!